



UPV/EHUko Pedro María Iriondo Bengoa jaunak, Secretario General de la Universidad del País Vasco, certifica que el presente documento concuerda literalmente con el original. Por delegación de firma, en virtud de la Resolución de 12 de septiembre de 2017, la auxiliar de negociado de Secretaría General (dot.2). Leioa, 2020ko uztailearen 30ean (a)ren 2020 de 2020

ERABAKIA, 2020ko UZTAILAREN 30ekoa, UPV/EHUko GERENTEARENA, ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN (AZP) ARLOAN ALDI BATERAKO ZERBITZUAK BETETZEKO GESTIOKO TERNIKARIAK (GESTIO OROKORRA) LAN POLTSA ZABALTZEKO HAUTAKETA PROZESUA BEHIN BETIKO EBAZTEKO DENA.

UPV/EHUko gerentearen 2019ko otsailaren 1eko Erabakiaren bidez, deialdia egin zen Gestio Teknikariak (Gestio Orokorra) lan poltsa zabaltzeko hautaketa prozesurako, administrazio eta zerbitzuetako langileen (AZP) arloan aldi baterako zerbitzuak betetzeko.

Deialdiko zazpigarren oinarriak ezarritakoarekin bat etorrita, hautaketa prozesua behin amaiturik, epaimahaiak lehiakideak ordenatzeko proposamena egin eta 2020ko ekainaren 3an eman da argitara Seigarren Oinarriko zazpigarren atalean zehaztutako tokietan eta zerrenda Gerentziara igorri da prozesua ebazten duen behin betiko erabakia eman dezan.

Hurrenkera proposamenaren kontra, lehiakide batek gora jotzeko errekurtso aurkeztu zuen, horretarako ezarritako epean. Errekurtsoa gaitzetsia izan da 2020ko uztailearen 27ko erabakiaren bidez.

Adierazitakoa kontuan hartuz, Gerentziak errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz, hau:

ERABAKI DU

Lehena. – Gestio Teknikariak (Gestio orokorra) lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesuaren emaitzak onartu eta behin betikotzat jotzea, epaimahaiak proposaturiko ordenazioaren arabera, 2020ko ekainaren 3an argitaratuta.

Bigarrena. - Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko gerenteari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke zuzenean, dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean. Epe horiek Erabakia UPV/EHUren web orrian (Administrazio eta Zerbitzuen Pertsonala, Hautaketa eta Hornikuntza) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontatzen. Epe horiek Erabakia UPV/EHUren web orrian (Administrazio eta Zerbitzuen Pertsonala, Hautaketa eta Hornikuntza) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2020ko uztailearen 30ean.

Miren Lorea Bilbao Artetxe
UPV/EHUko gerentea

